


Esther Larreategi eta Matxalen Ziarsolo

“Gustora egiten dena, sarritan errazago egiten da”

20 urte eskas dituzte biek baina jadanik 3 urte daramatzate emakumezkoen eskubaloia goreneko mailan. 9 urterekin hasi eta Ermuko talde ezberdinetatik pasa ostean, Euskal Herri mailan talde garrantzitsuenetakoa den Donostiko Akaba Bera-Beran ari dira egun, ohorezko mailan. Ikasketak eta kirola aldi berean uztartzeak buruko minak sortzen badizkie ere, ederki moldatzen direla aitortu digute izandako solasaldian.



- *Ikasketak ez dituzte beraz alde batera utzi...*

(Esther eta Matxalen): Esther arkiteturako ikasketak egiten ari da eta Matxalen Humanitateak eta Enpresa. Goizez ikasi eta arratsaldean eguneroko entrenatzen dugu.

- *Bizimodua gogorra egiten zaizue...*

Eskubaloiak gure bizitzaren zati haundi bat betetzen du eta beraz gustora egiten dena sarritan errazago egiten da.

- *Pisu batean bizi zarete Donostian...*

Taldeko beste bi jokalarirekin bizi gara. Primeran moldatzen gara. Hasiera gogor xamarra egin zitzaigun arren.

- *Taldean Bizkaitarrak, Nafarrak eta baita atzeritarrek ere badira...*

Bizkaitik lau gaude. Gehienak Hernani, Errenteri ingurukoak dira. Bada tartearen errusiar bat ere.

- *Momentuz denboraldia oso ondo hasi duzue...*

Jokatutako neurketa guztiak irabazi

ditugu baina iaz ere antzeko hasiera izan genuen. Maila oneko taldea osatu dugu aurten.

- *Taldean adin ezberdineko jendea dago...*

Akabak aspalditik jokatzen du Espainia mailako gorenean eta oraindik Amaia Ugartemendia eta beste batzuk taldean egotea guretzat oso garrantzitsua da.

- *Kontaktu asko dagoen kirola da eskubaloia...*

Lan fisikoa oso garrantzitsua da. Asko prestatzen dugu atal hori. Momentuz lesioekin ez dugu arazo asko izan nahiz eta Matxalenek aurreneko urtean belauneko haustura izan zuen.

- *Etxekoek jarraitzen dituzte zuen neurketak?*

Ez dute neurketa bat galdu. Gure jarraitzaile sutsuenak dira.

- *Ermuan eskubaloiak izan zuen piz-*

kundearen partaidea izan zineten...

Oso garai politak izan ziren haiek. Euskal Ligara igoera, Zaragozara bidaiia...oso harreman polita izan genuen gure artean. Valentin Gonzalez, Ana Saceda eta abarren lan eskergaitza ere goraipatu nahi genuke.

- *Eskubaloitik bizitzeko esperantzarik baduzue?*

Oraindik eskubaloia jokalaria gisa bizitzea oso zaila den arren, gustora gabiltza eta denborak erakutsiko digu emaitza.

- *Ermuko eskubaloia harrobiak izar berriak ematen jarraitzen du...*

Gurekin bada beste ermuar bat, Ainara Perez. 19 urte ditu eta bigarren denboraldia Akabako taldean. Bigarren taldean jokatzen badu ere, lehen taldearekin aritu da zenbaitetan. Dudarik gabe garai batean egindakoak eman ditu eta emango ditu lore berriak.

Asier Ibaibarriaga

- * Errehabilitazio zentrua
- * Kirol medikuntza
- * Fisioterapia
- * Ariketaren fisiologia
- * Kirol masaia

- * Erditze aurrekoak
- * Erditze ostekoak
- * Haurdunaldi frogak
- * Linfo-drenajea, Manual Vodder

Diputazioa 8-10 (ERMUA)

indartu@indartue.telefonica.net



Tel. 943 17 21 12 - 17 21 16 Faxa. 943 17 21 12